

BILBAOARTE URIBITARTE40

Kontrol materiala, kontrol ukiezina

Jorge Isla

PRENTSA DOSSIERRA

Fitxa teknikoa	2
Sarrera	3
Erakusketa	4
Argitalpena	5
Artista.....	6
Obren zerrenda	7
Egitarau publikoak.....	11
Irudiak	12

Fundación BilbaoArte Fundazioa
Urazurrutia Kalea, 32. 48003 Bilbao, Bizkaia
Sala URIBITARTE40 Aretoa
Uribitarte Pasealekua, 40. 48009 Bilbao, Bizkaia

ERAKUSKETAREN FITXA TEKNIKOA

Izenburua: *Kontrol materiala, kontrol ukiezina*

Artista: Jorge Isla (Huesca, 1992)

Lekua: BilbaoArte Fundazioa, URIBITARTE40 Aretoa
(Uribitarte Pasealekua, 40)

Datak: 2024ko otsailak 9 – 2024ko martxoak 10

Inaugurazioa: 2024ko otsailak 9, ostirala, 19:00etan

Kontrol materiala, kontrol ukiezina Jorge Isla artista huescatarraren (Huesca, 1992) erakusketa monografiko bat da; bertan, artistak bere azken ekoizpenak aurkezten ditu BilbaoArteren URIBITARTE40 Aretoan, eta zenbait gairen inguruan hausnartzen du, hala nola artisten lana aitortzeko eta saritzeko aplikatzen diren parametroak, artelanaren prezioa eta balioa, aurkezpenaren eta errepresentazioaren ideia moduko kontzeptuak, edo binomio batzuk: publikotasuna-pribatutasuna, ikusgai dena eta ikusezina dena; kopia eta originala.

Aretoarako espezifikoki sortua, erakusketa dimentsio handiko instalazio baten inguruan egituratzen da, diskurtso-nukleo hori ardatz nagusitzat hartzen duten sei obrekin batera.

Kontsumo-gizarteak beste edozein produktu material bezala asimilatu ohi du artelana, edo artisten lana artetik kanpoko balioetatik aitortzen da —hala nola prezioa eta merkatuan duen posizionamendua—; bada, modu berean, Islak paralelismo bat ezartzen du erakusketa-aretoan, bere proposamen artistikoak kanon konbentzionaletatik, erakusketen formatu arruntetatik edo obren material nobleetatik urruntzen dituen paralelismo bat, hain zuzen ere. Era horretan, jabetze artistikoaren edo bere proposamenetan material pobreak erabiltzearen moduko praktikak dira bere ikerketaren ardatza, dela pinturan, dela eskulturan dela instalazioetan, esanahi eta adierazle berriak bilatu nahirik.

URIBITARTE40 Aretoan erakusketaren kariaz, BilbaoArtek argitalpen monografiko bat plazaratzen du, *Arrazoitu gabeko katalogoa* izenburuarekin. Berau bederatzigarren pieza bat da, proiektuaren erakusketa-formatuan eta instalazio zentrolean azaldutako eta kuestionatutako planteamendu berberak sakondu eta jorratzen dituen.

Erakusketak dirauen bitartean —2024ko otsailaren 9tik martxoaren 10era—, proiektuarekin batera programa publiko batzuk egingo dira —artisten arteko topaketa bat, film baten proiektzioa eta bisita gidatu batzuk—, Jorge Isla artistaren planteamendu kontzeptual batzuk sakontzen eta ulertzen laguntzera zuzenduta.

Jorge Isla BilbaoArteko artista egoiliarra izan zen 2023ko otsailetik ekainera bitartean, artistari estudioa uztea barne hartzen duten egonaldi artistikoko Beken programaren bitartez, BilbaoArteren Ekoizpen Artistikorako Zentroan (Urazurrutia, 32).

Proiektu hau URIBITARTE40 Areto berriaren 2024ko lehen seihilekorako programazioan sartzen da. Izan ere, sasoi horretarako BilbaoArtek hiru artista aukeratu ditu, epaimahai profesional baten bitartez, aurreko urteko egoiliar guztien artean, honako hau garatzeko: banakako erakusketa bat, programa publiko batzuk eta aukeratutako artisten sustapen eta hedapenari laguntzen dien argitalpen monografiko bat.

2024ko lehenengo seihileko honetarako, Zuhar Iruretagoiena (Zarautz, 1981), Fermín Moreno (Bilbo, 1970) eta Ixone Sádaba (Bilbo, 1977) artistek osatutako epaimahai profesional batek Jorge Isla (Huesca, 1992), Marta van Tartwijk (Bartzelona, 1990) eta Irantzu Yaldebere (Bilbo, 1994) artistak aukeratu ditu.

URIBITARTE40 Aretoak, gainera, BilbaoArten aurreko urtean egonaldia egin zuten bi artisten bi banakako proiektu berriekin eta BilbaoArte Bilduman zentratutako bi erakusketa kolektiborekin osatuko du 2024ko programazioa.

KONTROL MATERIALA, KONTROL UKIEZINA, ERAKUSKETA

Jorge Islaren praxiak gure garaiko gizartearen mekanismo politiko, sozial eta ekonomikoak aztertzen ditu, horien egoera dikotomien bitartez irauliz: errealitatea eta fikzioa, kausa eta ondorioa, presentzia eta absentzia...

Mugaren, berrinterpretazioaren eta birsignifikazioaren kontzeptuetan oinarritutako ideia multzo bat irudikatzen du, objektu kontzeptual gisa, zenbait bitarteko —idazketa, irudien sorkuntza, bideoa eta instalazioa— konbinatzen dituen ikerketa plastiko batetik, proiektu bakoitzaren izaeraren arabera.

Argazkia, bere dokumentu izaeratik emantzipatuta, pinturaren formapean landu izan da denbora luzez; gaur egun, berriz, bere jatorrizko apaltasunera itzultzeko joera du: oroitzapenen irudiak, dokumentu administratiboak, album familiarrak, keinuen direktorioak, polizia-fitxak, iruditeria medikoa, artxiboak, etab. Irudien ekonomia hori kuestionatzean, artistek bizipen intimo eta diskretuaren hizkuntza erabiltzera bultzatzen dituzte irudiak, bizitza errealaren egoeretara ahalik eta gehien hurbilduz.

Idazpenarekiko lotura, orduan, literaturak dokumentaltzat hartu dituen formetan gertatzen da; forma horiek, nolana ere, kasu gehienetan istorioak, irudimenak edo —apurtutako edo desagertutako— ametsak gorde ohi dituzte. Argazkiaren, testuaren eta artxiboaren arteko artikulazioan, dokumentuaren poetika erreproduzitzen da. Aldi berean, baina, bere bereizmen propiotik harago hedatzen da.

Kontrol materiala, kontrol ukiezina aretorako espezifikoki sortutako erakusketa bat da, dimentsio handiko instalazio baten inguruan egituratzen dena, diskurtso-nukleo hori ardatz nagusitzat hartzen duten zazpi obren multzo batekin batera.

Instalazio nagusiak —*Izenbururik gabe* (2023)— katalogo moduko inbentario bat proposatzen du; bertan, argazkiz ilustratutako fitxen bitartez, hainbat motatako artelanak erakusten ditu, alegia, kontserbazio-irizpide desberdinen eraginez galdu egin diren artelanak, multzoaren estimazio monetarioa bisitari bakoitzaren espekulazioaren esku utziz.

Desbideratze-prozesu horren bitartez, erakusketak zalantzan jartzen du argazkigintzarekin eta bere dokumentu-estatusarekin dugun harremana, beraren erabilera tradizionalekin jokatzuz: froga juridiko moduan sortutako argazkia artelan bat erreproduzitzeko funtzioarekin asimilatzen da hemen. Birjabetze-prozesu hori fitxetan erakusten diren irudi jakin batzuen ezaugarri formalen miaketara hedatzen da; bertan, itxuraz lauak eta bereizmen txikikoak diren erreprodukzioetan lapurtutako artelanen eraldaketa-prozesuak —artelanaren erreprodukzioa inolako irizpide esanguratsurik gabe dago eginda— haien desmaterializazioa azaleratzen du, orain pixelen bilduma bat besterik ez baitira.

ARGITALPENA

Erakusketaren kariaz, BilbaoArtek artistaren monografia bat argitaratzen du. *Arrazoitu gabeko katalogoa* izenburupean, argitalpen hori proiektuaren beste obra bat bezala sortu da, eta artelanaren ohiko formatuaren iraulketa bat da, liburu formatura eramana.

Jorge Islak argitaratutako eta Iván Gómez artistak diseinatutako monografia honek proiektuaren erakusketa-formatuan eta instalazio nagusian azaldutako eta kuestionatutako planteamendu berberak sakondu eta jorratzen ditu: artelanez jabetzea, material pobreen erabilera edo konbentzionalismoen kuestionamendua, kasu honetan artista liburuen formatu editorialari eta liburuei lotuta.

Argitalpena gaur egun leku ezezagunean dauden artelanen irudien bilduma bat da. Nazioarteko izaera duen artxibo honek lapurtutako eta desagertutako objektu artistikoei buruzko polizia-informazio ziurtatua gordetzen du —informazioa erakunde ofizialek emandakoa da—.

Islak artelanei buruzko testu-erreferentzia guztiak erauzi, testuingurutik atera eta desegin egiten ditu, konpilazio bat sortzeko, edo, berak dioen bezala, “*arrazoitu gabeko katalogo bat*”, non absentziek eta presentziek, ikusgai denak eta ikusezina denak, edo publikoak eta pribatuak —bere obraren ardatz orokorrak— edukitzailaren eta edukiaren esanahia aldatzen duten.



JORGE ISLA ARTISTARI BURUZ

Huesca, 1992

Bilbon bizi da eta bertan lan egiten du

BilbaoArteren artista egoiliarra izan zen 2023an, artistari estudioa uztea barne hartzen duen sorkuntza artistikorako Bekaren modalitatean.

Ikus-entzunezko komunikazioan graduatua San Jorge Unibertsitatetik, ekoizpen artistikoaren masterduna Valentziako Unibertsitate Politeknikotik eta argazkigintzako autore-proiektuen masterduna Madrilgo Lens Eskolatik.



Jorge Isla, 2023. Argazkia: Iñaki Domingo. Artistaren eskaintza

Bere praxiak gure garaiko gizartearen mekanismo politiko, sozial eta ekonomikoak aztertzen ditu, horien egoera dikotomien bitartez irauliz: errealitatea eta fikzioa, kausa eta ondorioa, presentzia eta absentzia. Mugaren, berrinterpretazioaren eta birsignifikazioaren kontzeptuetan oinarritutako ideia multzo bat irudikatzen du, objektu kontzeptual gisa, zenbait bitarteko -idazketa, irudien sorkuntza, bideoa eta instalazioa-konbinatzen dituen ikerketa plastiko batetik, proiektu bakoitzaren izaeraren arabera.

Honako beka eta sariak jaso ditu: VEGAP 2015 beka; College d'Espagne à Parisen egonaldia, MECDri esker (2018); Bilbaoarte Fundazioaren egonaldi-beka; Ankaria Fundazioaren Javier Rosón Saria, artista gazteen libururik onenagatik; Errioxako Gazte Artearen Erakustaldiaren 1. Saria; Brocense Aretoaren obra erosteko saria; La Térmica egonaldia (Málaga, 2020), MECDen ikerketa, sorkuntza eta ekoizpen artistikorako Laguntza; Aragoiko Joaquina Zamoraren obra erosteko saria; Miguel Hernández Unibertsitatearen obra erosteko saria; Bilbaoarte Fundazioaren Ekoizpenerako beka (2021), Tabakaleraren Immaterial saria; Las Cigarrerasen Scroll saria; Huescako Diputazioaren Ramón Acín Beka (2022); INJUVERen ekoizpenerako laguntzak; erosketarako IX. Mardel Saria; Loiolako Unibertsitatearen Erosketa Saria eta Guggenheim Museoaren Basque Artist Program (Bilbo, 2023).


Banakako erakusketak egin ditu zentro hauetan: Da2 Artium (Salamanca, 2023), Las Cigarreras (2022), Arte Santander (2022), SC Gallery (Bilbo, 2022), Antonia Puyó Galeria (Zaragoza, 2021 eta 2017), Rambleta (Valentzia, 2020), Presente Galeria (Porto, 2020), Valentziako Historia Naturalaren Museoa (2018), Photoespaña (2017), Kir Royal Gallery (2017), Cordobako Argazkigintzaren XV. Bienala (Cordoba, 2017) eta Cibeles Zentroa (Lanzadera, Cur. Iñaki Domingo, Madril, 2016); horiez gain, zenbait erakusketa eta azoka kolektibotan izan da, bai nazio mailan eta bai nazioartean.

www.jorgeisla.com

Fundación BilbaoArte Fundazioa
Urazurrutia Kalea, 32. 48003 Bilbao, Bizkaia

Sala URIBITARTE40 Aretoa
Uribitarte Pasealekua, 40. 48009 Bilbao, Bizkaia

ERAKUSKETAKO OBREN ZERRENDA



1.

Titulurik gabea, 2023

Eskultura. Zeramika. 17,5 × 10 × 10 cm

Itsulapiko zeramikoa, Marxen busto batekin, goiko partean zirrikitu bat duena. Idulki baten gainean dago jarrita, erakusketa-aretoan, eta bertan bisitariek dohaintza bat egin diezaiokete artistari, honek ekoizten jarraitu ahal izan dezan, edo ez. Dirua bertan sartuz gero, egilearen esku dago erabakitzea zertarako erabiliko dituen dohaintzak.

Pieza honek badu lotura Islak bere obretan behin eta berriz kuestionatzen dituen parametro batzuekin, hala nola artisten lana aitortu eta kuantifikatzerakoan oinarritzat hartzen diren faktoreak, eta artelanaren prezioa eta balioa. Marxen ikonoa eskulturaren edukizailerako aukeratzeak ekonomia marxistari datxekion "balioaren teoriarekin" du konexioa; teoria hori beste ekonomialari batzuek ere garatu dute, hala nola Adam Smithek, "balioaren eta lanaren teoriaren" izenburupean, eta geroago anarkismoak eta beste korronte batzuek bere egin zuten berriro. Horiek guztiak merkantziaren prezioaz hausnartzen dute, merkantzia hori erosteko beharrezkoa den lanaren ikuspuntutik, zeren horrek kontzeptu bat pertsonifikatzen baitu, alegia, zenbateko lana behar den ondasun bat eskuratzeko. Isla hortik harago doa, eta teoria hori artistarentzat eta bere obrarako estrapolatzen du, eta figura hori kuestionatzera eta berari buruz pentsatzera bultzatzen gaitu, artista langileztat eta beraren obra produktu edo merkantziatzat hartuta.

2.

Titulurik gabea, 2023

Instalazioa. Laser inprimaketa 90 gr-ko paper, plastiko eta paketatzeko zintaren gainean. Kokapen espezifikoak dimentsioak



Titulurik gabea lapurtutako artelanei buruzko datu-basetik ateratako artelanen irudien konpilazio bat da —artelan horiek leku ezezagunean daude gaur egun—. Artxibo honek lapurtutako eta desagertutako artelanei buruzko informazioa biltzen du, bamendutako erakundeek emanda.

Islak artelanei buruzko ikus- eta testu-erreferentzia guztiak erauzi, testuingurutik atera eta desegin egiten ditu, kokapen espezifikoak duen instalazio bat sortzeko,

zutabe eta horma-atal mugikorren bitartez; bertan, gaur egun leku ezezagunean dauden artelan lapurtuen erreprodukzioak biltzen dira. Askotariko produktuak — artelanak barne sartuta— enbalatzeko eta garraiatzeko erabilitako babes-plastiko batean daude instalatuta, haien balizko apurketa edo galera saihesteko eta, era horretan, elementu guztiak entitate bakarrean bilduta izateko.

Era horretan, artelanetatik esperodiren konbentzionalismo eta formalismoak kuestionatzen ditu, eta baita egozten zaien kalitatea eta haien sorkuntzan erabiltzen diren materialak ere; halaber, zalantzen jartzen du artelanak materializatzeko eta arte-zentro eta museoetan erakusgai jartzeko modua.



3.

***Titulurik gabea*, 2023**

Eskultura. Urre nordikoa. 1,9 × 0,02 cm

Euroaren hamar zentimoko txanpona, egurrezko zerra batez higatua. Esku-hartze honen bitartez, bisitaria kuestionatzen da, zeren planteatzen baitzaio zenbat diruren truke egongo litzatekeen prest lurzoruraino makurtzeko. Balio ekonomiko horretatik —euroaren hamar zentimo— abiatzea aukeratzeko arrazoia da bisitaria bere burua kuestionatzera eta beste pertsona batzuekin elkarreraginean aritzera behartzea, ikusteko zer gutxieneko balioagatik onartuko luketen denbora eta espazio dimentsio berean dauden gainerako kaletar edo pertsonen ondoan txikiagotzeko ariketa hori egitea.

Instalazio honetan, Islak bere obren partaide bihurtzen ditu ikusleak edo bisitariak, arte kontzeptualaren postulatueta hurbilduz; izan ere, mugimendu horren hasieratik beretik, beraren aldekoak dira gehien defendatu dutenak artea parte-hartzaileagoa izatea, eta ez ikusteko zerbait soilik. Keinu soil horrekin buelta ematen dio arte-zentro eta museoetako publikoaren ohiko rolari, publikoa subjektu aktibo bihurtuz, hots, bere instalazioaren aktibatzaile eta bideratzaile bihurtuz, aretoko beste pertsona batzuek hausnartu dezaten eta berenganatutako ideia batzuk zalantzan jarri ditzaten.



4.

***Fastpass*, 2023**

Kanal bakarreko HD bideoa (1920×1080), kolorea eta soinua. 7'00", loopean

1989an, Ian Groundek (Londres, 1958), Durhamgo unibertsitateko ikertzaile eta filosofiako doktoreak, Art or

Bunk? Idatzi zuen (Mind Matters), eta bertan museoetan aurkitzen dugun isiltasuna kuestionatzen du, gai hauen bitartez: Zer-nolako isiltasuna da hau?, Pribatutasun eta kontzentrazioaren eraginez gertatzen da, liburutegi batean bezala? Errespetuagatik eta begiruneagatik da, eliza batean bezala?

Arte-zentroetara sartzten garenean, ohikoa da pertsona ugari aurkitzea, sarrerak erosten, etab. Elkarrizketa, zarata eta soinuek esparru horietako atondoak bete ohi dituzte, baina zerbait gertatzen da publikoa kultur zentro horietako atondotik barrura sartzten denean, alegia, artisten proiektuak aurkeztu eta erakunde horiek gorde eta erakusten dituzten bildumak erakusten diren esparru edo aretoetara sartzten denean.

Ikus-entzunezkopie zahonek kulturesparruetako jokabide eta erabilerei lotutako konbentzionalismoez hausnartzen du, zeren bertan zenbait binomio azaleratzen baitira, hala nola sakratua vs laikoa, edo publikoa vs. pribatua, eta agerian uzten dituzte kulturalki eta sozialki onartuta dauden eta denboran zehar nazioartean errepikatzen diren jokabideak eta portaerak.



5.

Titulurik gabea, 2023

Instalazioa. Binilo beltza. Neurri aldagarriak


Kokapen espezifikoa duen instalazioa, txorien silueten eranskailuetatik abiatuta osatua; eranskailu horiek azalera kristaldun baten presentzia adierazteko eta nabarmentzeko erabili ohi dira, inguruko pertsona eta hegaztien kolpeak saihesteko xedez. Beirazko panel horiek ikusezinak izatera iristen dira, edo ispilu moduan funtzionatzera, haien inguruko argi-baldintzen arabera.

Instalazio horretan, Islak zenbait kontzeptuz hausnartzen du, hala nola mugak edo mugarriak, esparru publiko eta pribatuak, ikusgai dagoena eta ikusezina dena, kausa eta ondorioa. Eranskailuak birformulatzen ditu formalki, haien forma estandarizatua aldatuz (hegaztien forma) eta esanahi berria ematen die, hain arruntak edo konbentzionalak ez diren espazioetan jarriz (adibidez: erakusketa-areto baten leihateak), eta horrela bultzatzen gaitu erabilerez eta ohiturez birpentsatzea eta horiek kuestionatzera.



6.
Titulurik gabea, 2023
Paperezko pleguak, tolestuta eta josita. 21 × 29,7 cm

Testigantza moduko koaderno bat, non artistak bisitariak gonbidatzen baititu *Kontrol materiala, kontrol ukiezina* erakusketa-proiektuaren bisitatik sortutako inpresio pertsonalak eta gogoetak konpartitzera.



7.
Titulurik gabea, 2021
Laser inprimaketa, 90gr-ko paper gainean. 21 × 29,7 cm

Erakusketaren autorearen aurkako salaketa, artelana lapurtzeagatik, identitatea ordezteagatik, ohorea zikintzeagatik eta balizko bezeroak lapurtzeagatik.

Publikoa eta pribatua, ikusgarria eta ikusezina, kopiaren eta jatorrizkoaren kontzeptua berriz ere azaleratzen da artistaren kontrako salaketa batetik sortutako pieza honetan. Salaketa epaitegi batean aurkeztu zen, eta azkeneko epaia salatutako artistaren aldekoa izan zen; bada, espediente hori, nahiko pribatu eta konfidentziala zen esfera batetik aterata, espazio publiko batera estrapolatu da (erakusketa-areto bat), helburu honekin: gertatutakoa kuestionatzea eta bisitariak bere obran maila teorikoan lantzen dituen konbentzionalismo eta formalismo berberetz hausnartzera bultzatzea, beste material eta elementu batzuetatik abiatuta osatzeko.



8.
Titulurik gabea, 2023
Laser inprimaketa, 120gr-ko paper gainean. Gutxi gorabehera 30×5×12,2 cm, paperezko zinta itsaskorra eta paketatzeko zinta.

Pintura hezeari buruzko oharra, New Yorkeko metrotik berreskuratua eta Uribitarte 40ko erakusketa-aretoan kokatua. Artistak hiri-seinaletika bat bereganatu eta bere testuinguru naturaletik ateratzen du, erakusketa-aretoaren testuinguruan kokatuz, elementu bera kontestu berri baten izan ditzakeen esanahiak zabalduz. "Wet Paint" (pintura hezea) mezuak bisitaria interpelatu eta berarekin jolas bat egiten du; kopia, plagioa, hibridazioa edo parodiaren inguruan hausnarketa egitera bultzatuz. Hauek guztiak, gaur egungo panorama sortzailearen joerarekin lotutako ideiak dira, haka nola, irudiaren desmaterializazioa edo zelan originaltasuna eta egiletzaren nozioen deseginketa posible izan daitezken.

EGITARAU PUBLIKOAK

INAUGURAZIO EGITARAU

Inaugurazioa
Data: Ostirala, otsailak 9
Ordua: 19:00 – 21:00

Egitarua
19:00: Aretoa irekitzea eta aurkezpen publikoa
Sarrera librea

Bisita gidatua, artistarekin
Data: Larunbata, otsailak 10
Ordua: 12:30
Iraupena: 40 min.
Sarrera librea

FILMAREN PROIEKZIOA

El Precio del Arte (2018),
Nathaniel Kahn

Data: Osteguna, otsailak 15
Ordua: 18:30
Iraupena: Ordu eta 35 min.
Hizkuntzak: JBA (Jatorrizko bertsoa,
gaztelaniaz azpitulatua)
Sarrera librea plaza guztiak bete arte

BISITA GIDATUAK

Publiko orokorarentzako bisita gidatuak,
gaztelaniaz eta euskaraz, entzumen-dibertsitate
funtzionala duten pertsonentzat egokituak.

Aldi bereko bisita gidatua gaztelaniazko zeinu-
hizkuntzaz eta ahoz.

Data: asteazkena, otsailak 14 (gaztelaniaz),
otsailak 21 (euskaraz)
Ordua: 19:00
Iraupena: 45 min.
Sarrera librea plaza guztiak bete arte


ARTISTEN ARTEKO TOPAKETA

Mahai-inguru bat mahai karratu batean
Parte-hartzaileak: Victoria Ascaso, Adrian
Castañeda, Jorge Isla, MawaTres
Data: osteguna, otsailak 29
Ordua: 19:00
Iraupena: Ordu eta 30 min.
Sarrera librea plaza guztiak bete arte

Mahai-inguru bat mahai karratu batean saioa honela definitzen da: artea hizpide izango duen mahai-inguru bat izan beharrenean, elkarrizketamahi bat izango da, erakusketa arrunt baten barruan artea inguratzen duen guztia jorratuko duena.

Horrenbestez, topaketa horren dinamikaren bereizgarria izango da ez dela egongo ez dinamikarik, ez eskaletarik, ez galdera-txandarik ezta aurretik ezarritako gidoirik ere. Parte-hartzaile bakoitzak, modu guztiz informalean, ordenagailu bat izango du eskuragarri, eta hor musika, memeak, YouTubeko bideoak eta gisa berekoak erakutsi ahal izango du, inolako arau formal edo artistikorik gabe, hau da, dela aisialditik dela umoretik.





Fundación BilbaoArte Fundazioa
Urazurrutia Kalea, 32. 48003 Bilbao, Bizkaia

Sala URIBITARTE40 Aretoa
Uribitarte Pasealekua, 40. 48009 Bilbao, Bizkaia



Fundación BilbaoArte Fundazioa
Urazurrutia Kalea, 32. 48003 Bilbao, Bizkaia

Sala URIBITARTE40 Aretoa
Uribitarte Pasealekua, 40. 48009 Bilbao, Bizkaia